

Zuhotza
euskara eikarlea 155. alea - deba

Berriketan

Debako herri aldizkaria - 155. alea - 2011ko abuztua



Zapia lepoan,
euskara ahoan




MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS Uzuri

**ZURE
ENTZUMENA
ZAITZEN**



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPIZKOA) ase.deba@teleline.es

ESTITXU ERREFORMAK

- DEKORAZIOA
- SUKALDEAK
- PROIEKTUAK
- BAINUGELAK
- ERREFORMAK
- ALTZARIAK

Hondartza kalea 3 - behea
20820 DEBA
Tel. 943 19 23 87
Fax 943 19 23 87
www.esfitxuerreformak.com

**Lizaso
Autozerbitzua**

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29

oskarbi

Pintxoak
Razioak
Ogitarteokoak
Plater konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 039 488 - 018 644 014
20820 DEBA (GIPUZKOA)

**ALBIZU
HARATEGIA**

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA
TABERNA**

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

**MAZZANTINI
TABERNA**

Sokasua, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

Informatica
Tronburia
informatikoa

Electronika
Osagai
elektronikak

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

e-mail: jk@informatika@elektronika.e.telefonico.net

**GENOVEVA
Arraindegia**

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 9431 02263
www.atarideba.com

**ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

ORAIN

ILEAPAINDEGIA

C/ Hondartza, 2 • Tel: 943 192 109 • 20820 Deba

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkartea
Erredakzio taldea:

Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorransoro,
Lukax Dorransoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:
Joxe Ramon Larrañaga

Publizitatea:
Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutzaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua
Banaketa arduraduna:
Juanma Oiartzabal
Inprimategia:
Euskalinpri

Tirada:
1.400 ale
Lege gordailua:
SS-246-2009
ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken osteguna baino lehen.

ARGITARATZAILERAK



LAGUNTZAILERAK



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



6



8



9



10

Nerea Allika

KOLABORAZIOA: Haika Aizpurua, "Deba, herri turistikoa?". **05 ALBISTEA:** Debako ondarearen transmisioa. **06 IRUDITAN:** Burdin Kurutz M.T. eta Luzarok antolatutako mendi irteerak. **08 KRONIKA:** Auzolanderiak Lasturren eta bandera beltza Debako itsasadarrari. **09**

2011ko San Roke jaiak, abuztuaren 14tik 19ra. Aurtengo egitaraua ikusi nahi? 16-17


LABURRAK: Debalairen moda desfilea... **10 LITERATUR LANAK:** Zuhatzak antolatutako lehiaketan saritutako lanak. **11-14 ZERBITZUAK:** 18

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN

260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.

943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2011 urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Mila esker, Deba!

Beno, aurtengo ikasturtea joan zaigu eta hurrengo ere gertu dugu. Zubi Guraso elkartetik eskerrak eman nahi dizkizuegu aurtengo ikasturtean ekintza ezberdinetan parte hartu duzuen guztioi.

Debako biztanle eta guraso-
ok, zuei esker, ekintza atsegin eta dibertigarriak egin ahal izan ditugu:

***Olenterok** Debako haurrak bisitatu zituen eta aurten gainera telebistan irten ginen zuzenean. Mila esker Goaz taldea, Luzaro ikastetxea, udaletxea eta ekitaldi honetan parte hartu duzuen guztioi.

*Aurtengo negu gogorrek asteburu arinagoak izan ditu zuen laguntzarekin antolatu eta aurrera eramanez ahal izan diren **zine emanaldiei** esker. Mila esker Debako Ostolaza liburutegiari eta Kultur Elkarteari, pelikulak eta zuen instalazioak erabiltzen uzteagatik.

*Aurtengo **Zubi Txiki** ere berezia izan da. Aitona-amonak izan ditugu lagun eta hauen txikitako jolasak praktikan jartzeko aukera paregabea izan dugu euren eskutik zuzenean. Eskerrik asko Arbil Jubilatutako elkarteari, Josu Iriondori eta, nola ez, Gaztelekuko monitore eta gazteei. Zuekin lan egitea gozada bat da!

*Ezin zaituztegu ahaztu ikasturte osoan zehar **eskola kirolean** eta **krossean** parte hartu duzuen guraso eta laguntzaile guztiak. Zuek gabe ezingo genituzke asteburu etako ekintza hauek aurrera eramanez.

Hurrengo ikasturtea ere aurtengo bezalakoa izatea espero dugu. Zuen laguntzarekin, segurua baietz!

Debako Zubi Guraso Elkarteak

Lekukoa pasatzeko une egokia delakoan

Jakingo duzuen bezala, 1969. urtetik hona, Debako jaiei hasiera ofiziala emateko ohorea izan dut. Portu kalean, udaletxeko horman dugun San Rokeren irudiari eta haren txakurrari zapi gorria ipintzea pribilegio handia izan da niretzat. Ekitaldi xumea, baina aldi berean hunkigarria eta zirraragarria izan ohi da hau; batez ere, bertaratutako debar guztiak "Gora San Roke" eta "Gora Deba" elkarrekin oihukatzen duten unea.

Baina bizitzan gainontzeko uneekin gertatzen den bezala, honek ere hasiera eta amaiera ditu. Hala, hemendik aurrera, une magiko honen protagonista ez izatea erabaki dut. Urteak aurrera doaz eta lekukoa nire semeari, Josuri, emateko une egokia dela uste dut. Festei amaiera emanez, berak kendu ohi dio zapi gorria santuari.

Benetan harro nago, festetan jendea zapi gorria janztera bultzatzeko helburuarekin antolatu zen eta hasiera batean ekintza lotsagabetzat jo zen ekitaldia festetako programako unerik herrikoiena eta hunkigarriena bilakatu delako.

Bihotzez eskertu nahi nizkizueke urtez urte une honi eskaini dizkiozuen denbora eta profesionaltasuna; eta niri, pertsonalki, erakutsitako begirunea eta maitasuna.

Besterik gabe, zuen esanetara naukazue eta une hau aprobetxatu nahi nuke nire agurrik beroena helarazteko.

Deba, 2011ko ekainaren 18a

Jesus M^a Azkoitia

Umeen Egunaren 60. urtemuga

Debako Umeen Egunaren 60. urteurrena ospatzearekin batera, Debako herriari, Udalari eta kultur elkarte zein taldeei jakinarazi nahi diegu, baita haurren gurasoei ere, belaunaldien arteko errelebo falta dela eta, aurten, azkeneko aldiz antolatuko duela Katekesiak festa hau. Hala ere, festa hau hainbeste maite duen Debako herriak Umeen Egunaren antolakuntza bere gain hartzea espero dugu, Debako haurrek eskertu egingo dutelako eta merezi dutelako.

Beraz, azken aldiz, aurtengorako laguntza eskatu eta, bide batez, urte hauetan emandako laguntza ordainezina eskertu nahi dizuegu. Mila esker!

Debako Katekesi Taldea

Berriketan-en hurrengo alea, urrian!!

Esku artean daukazuen aldizkariaren ale honekin agurtzen du Zuhatza Euskara Elkarteak ikasturtea. Abuztuko oporrak direla eta, irailean ez dela *Berriketan*-ik kaleratuko gogorarazi nahi dizuegu. Hurrengo alea urrian plazaratuko dugu. Ordura arte agurtzen zaituztegu, beraz! Bide batez, lerro hauen bitartez, herriko festetan zein oporraldietan ondo pasatzea opa dizuegu. Eta, badakizue, irailetik aurrera izango dugu berriz ere elkarren berri, besteak beste, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian. Ondo izan bitartean!

Zuhatza Euskara Elkarteak

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



HAIKA AIZPURUA

DEBA, HERRI TURISTIKOA?

Egunak joan eta egunak etorri nire buruak ez du erantzunik topatzen. Askok dira hondartzan eserita pasatzen ditudan gaueko orduak eta gaur arte ez dut ezer garbirik atera.

Nondik eta nora arte nahi dugu gure herria turistikoa izatea? Zer da saldu nahi duguna? Prestatuta al gaude gurea dena konpartitzera? Eta horrela bada, zer da konpartitu nahi duguna?

Ez daukat inongo dudarik zerbitzuen sektorea oso garrantzitsua dela Deban. Azken urteetan itxita egon diren lokal asko zabaltzen joan dira. Lanpostu berriak sortu ditugu. Bizipoza ekarri dugu gure herrira. Eta denbora gutxian badirudi dena atzera doala berriz ere, krisia akaso? Ez dut uste!

Infrastruktura akatsa baizik. Ez dugu jakin gurea dena kudeatzen. Aukera asko joan zaizkigu eskuetatik. Ekaingo kobazuloak, flishak,... bada ordua pentsatzen jarri eta gure herria eraikitzeko. Gure arbasoek guk baino inteligentzia handiagoa zutelakoan nago. Debako herriak ez ditu 100 urte. Zer dela eta bizi ziren kobazuloetan haiek? Kasualitatea? Ez dut uste! Aberastasunez beterik gaude eta ez

dugu etekina ateratzen jakin.

Eskertzekoa da herritar askok egiten duten lana. Herri mailan Patxigatik galdetuz gero tonto aurpegia jarriko genuke. Nor da Patxi? Atzerritar askori galdetuz gero irribarre bat aterako genieke. Patxi baita herri honetan Santiago

bideko ibiltariei musu-truk bere bizitza

oparitu eta beste askori negozioak aurrera ateratzen laguntzen

diguna. Milaka dira urtean

zehar Deba zapaltzen

duten bisitariak eta gaur

oraindik ez diogu ekintza

honi garrantzirik ematen.

Gizon hau joaten zaigunean, espero dut urte asko

barru izatea, beste aukera

bat galtzen utziko dugu?

Nahikoa da orain artean gure

inguruko herriek kendu digutena.

Azter dezagun gure herria, zer daukagun eta zer behar dugun. Hondartzatik hasi eta mendietaraino. Udal berri bat dugu eta hemen dago aukera. Lehendabizi presta gaitezen gu, erakutsi diezaiozun gure herriari zenbat aukera anitz dauzkagun eta presta gaitezen datorren urteko Fiturren hau guztia aurkezteko. Herri honek irabazten badu, herritarrok irabaziko dugulako egin dezagun apustua, DEBA.



Debako ondarearen transmisioa

Debako Udalak, ahozko ondarearen transmisioak Deban izan duen etena ikusirik, transmisio hori indartzeko proiektu bat abiatu zuen 2010. urtean, Badihardugu Elkartearen laguntzarekin. Lan horren emaitza ekainaren amaieran aurkeztu zuten, Ostolaza Kultur Elkartearen. Dagoeneko Ahotsak.com webgunean ere ezagutu daitezke proiektuaren nondik norakoak.

Debako ondarearen transmisioa indartzeko proiektua 2010. bukaeran jarri zen martxan. Herriko sei neska gazte aukeratu zituzten lana burutzeko eta 2011. hasieran adineko zenbait pertsona elkarrizketatu zituzten, haien hizkera eta bizipenak jasotzeko. Hamar elkarrizketa egin dira guztira. Jone Olazabal, Nere Oria, Irati Baroja, Maitane Garcia, Ane Arrizabalaga eta Arrate Odriozola gazteak izan dira elkarrizketatzaileak, baina udaleko Mila Idiakenez zinegotziaren eta Amaia Zinkunegi teknikariaren laguntza ere izan dute zenbait elkarrizketatan. Lan guztia Badihardugu Elkartearen gidaritzapean egin da eta egindako elkarrizketen zerrenda Ahotsak.com webgunean ikus daitezke, Debako orrian.

Bada, jasotako materialarekin eta Debako Udaltzaren argazki zaharrek bideo labur bat prestatu da, eta horixe izan zen ekainaren 25ean Debako Ostolaza Kultur Elkartearen egindako aurkezpenean erakutsi zena. Debako euskara zinegotzi Nekane Arakistainek sarrera txiki bat egin ostean, Badihardugu Elkartearen Aintzane Agirrebeñak proiektuaren inguruko azalpenak eman zituen.

Elkarrizketatzaile gazteek ezin izan zuten aurkezpenean egon, baina euren esperientziaren berri emateko bideo bat prestatu zuten. Bukaeran, elkarrizketetan parte hartutako lekukoei euren grabazioaren eta aurkezpen bideoaren kopia bana eman zitzaizkien, esker ona adieraziz.

“Hiru egun balearen sabelean”

Herriko nagusien ahotsak biltzen aritzeaz gain, aurten beste ekimen batzuk ere burutu ditugu. Hain zuzen ere, azken urteetan herriko kondairak, ohiturak, tradizioa...



biltzeko ahalegina egiten ari da Debako Udala; gauden tokira nondik eta nola heldu garen ulertzea, gure aurrekoen sinesmenak, imaginarioa... ezagutzeko garrantzitsua iruditzen zaigulako aurrera egiteko. Hori hala, “**Irulearen begiratokia**”, “**Alostorra**” eta “**Hiru olatuak**” izeneko kondairak argitaratu izan ditugu lehengo. Aurten beste mutur bati heldu eta ipuin bat argitaratu dugu: “**Hiru egun balearen sabelean**” (Pamiela). Patxi Zubizarretak sortu du haurrentzako ipuin hau eta Jokin Mitxelenak ilustratu.

Ipuinak Debako historia zati bat hartzen du eta balearen arrantzan oinarritzen da. Gaur egun Deba ez da herri arrantzalea; ez behintzat Getaria edo Lekeitio, bi aipatzearen, izan daitezkeen bezala. Baina bere garaian Debatik ere ateratzen ziren bale arrantzaleak Ternuaraino. Eta Zubizarretak hor kokatu du, hain justu, bere ipuina, abenturaz betea. San Roke izeneko itsasontzian ontziratu den Ismael txoa du protagonista eta lau pertsonaiaren bitartez kontatzen du istorioa.

Debako herriari hainbat erreferentzia egiten dizkio ipuinak: San Rokeri, Labatairi, elizako sabaitik zintzilik dagoen ontziari... Eta euskal tradizioko hainbat kontu ere badarabilzki: San Juan suaren ingurukoak, sorginkeriak, eta abar. Finean, ezin hobeto uztartzen ditu piraten abenturarik ederrena eta euskal kultura.

Zubizarreta eta Mitxelena marrazkilaria Deban izan ziren liburua aurkezten. Hitzorduan 5. mailako haurrak izan ziren eta adi-adi jarraitu zituzten egileek emandako argipenak. Ipuina liburu-dendetan jarriko da salgai baina herriko bi eskoletan ere 100na ale banatuko dira neska-mutilek landu ahal izan dezaten.

Udaleko Euskara Batzordea



Badugu 2011ko Euskal Jaia ilustratzeko kartela!

Datorren irailaren 24an ospatuko dugu garai berriko XIV. Euskal Jaia. Antolaketa lanak abian daude dagoeneko. Aurtengorako kartel lehiaketara bi lan aurkeztu dira, eta bozka gehien lortu dituen **Isidor Lamarianoren** kartela izan da. Bozketan ia 200 lagunek hartu dute parte, eta 106 boto jasoaz irabazi du lehia Isidorrek. Zorionak, beraz!

Eskerrik asko bozketan parte hartu duzuen guztioi eta, nola ez, lanak aurkeztu dituzuenoi!!



DEBAN, UDA KULTURAZ BLAI

Konturatu orduko agurtu dugu uztaila ere. Zuhatzak, bere urteko plangintzarekin jarraituz, hainbat kultur ekimen burutu ditu, betiere euskaraz herriko aisialdi eskaintza aberasteko asmoz.

Aurreikusitako egitaraua errespetatuz, hitzordu gehienetan etxeko txikienak izan dira protagonista. Uztailean hiru ikuskizun izan zituzten aukeran, eta eguraldiak ez zuenez askorik lagundu,

horietako bi emanaldi Luzaroko pilotaleku txikian egin ziren.

Jakin eta Jolas pailazo bikote dibertigarriak "Antzokiko istorioak" antzeztu zituen, **Ttinbili Ttanbalak** "Bikokote" lana ikusteko aukera eskaini zuen, eta **Zurumurru** taldeak, berriz, "Txurrimurri eta Morritoston" zirko txikia ekarri zuen Deba aldera. Ikuskizunak hiru astearte iluntzetan egin ziren, eta Luzaroko

pilotalekua txiki gelditu zen emandietara hurbildutako haur kopuru handia zela eta.

Aurtengo eskaintzak harrera polita izan duela ikusita, Zuhatzak eskerrak eman nahi dizkie ekimenetan parte hartu duten guztiei, alegia, elkartearen deialdiari erantzun zioten artista eta konpainiei zein, nola ez, ikuskizunetara hurbildu ziren herritar guzti-guztiei. Mila esker!



**DEBAKO
BOTIKAK**

GOARDIA 24 ORDUZ

- ZALDUEGI: Tel. 669 262 201
Abuztuak: 26, 27, 28. Irailak: 5, 6, 7, 8.
- BURGOA ZUAZO Tel. 667 338 890
Abuztuak: 12, 13, 14, 22, 23, 24, 25. Irailak: 9, 10, 11.

Larunbat goizetan beti bat irekita:
9:30 - 13:30



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



Arno, 2010eko iraila.



Larrun, 2010eko urria.



Larrun, 2010eko urria.



Adarra, 2010eko azaroa.

IKASTURTEKO MENDI IRTEERAK, IHUDITAN

Burdin Kurutz Mendi Taldeak eta Luzaro ikastetxeak antolatuta, ikasturte honetan zehar egindako mendi irteeren zenbait argazki bildu ditugu orrialde honetan. Inoiz baino jende gehiagok hartu du parte irteeretan, eta haurren parte-hartzeak ere gora egin duela nabarmendu dute antolatzaileek. Pozik daude, beraz, ikasturterako prestatu zuten egutegiak izan duen harreragatik. Mendizaletasuna sustatzeko erronkarekin betiere, eskaintza berria egingo dute uda ostean, eta **Berriketan** aldizkariaren bidez emango dute horren berri. Txangoak ikasleei zuzenduta egon arren, nagusiek ere badute horiez goatzeko aukera, antolatzaileek ibilaldi erraz eta atseginak aukeratzen dituzte eta. Beraz, gazteei ez ezik, guraso eta nagusiei ere luzatu nahi diete irteeretan parte hartzeko gonbitea.

Animatu zaitetzte!



Aralar, 2011ko urtarrila.



Gorbea, 2011ko otsaila.



Soraluze, 2011ko martxoa.



Kanboarrak Deban, 2011ko apirila.



Izura, 2011ko maiatza.



Andutz Eguna, 2011ko ekaina.

Auzolandegiak Lasturren antzinako artisau-harrobi baten eta errota zahar baten berreskurapenerako

Lastur Bailarako geodibertsitatea eta ondare etnografikoa balioan jartzen

Uztailaren 4tik 17ra, 14 eta 17 urte bitarteko gazte talde batek Lastur bailaran aurrera eraman den auzolandegi batean hartu du parte. Ekimena **Kutxak** antolatatu du Debanaturaren lankidetzarekin, eta Aranzadi Zientzia Elkarteak koordinatu du.

“Oinarrizko kanpamendua” **Lasturko Aterpetxea**, Naparrenekua, izan da; gazteek, hiru begiralek eta bi sukaldari zoragarrik hartu dute ostatu bertan.

Auzolandegiaren helburua antzinako dimentsio txikiko harrobi abandonatu bat berreskuratzea zen, bailara honetako **meatze eta geologia ondarearen** barnean sar litekeen adibide adierazgarri gisa. **Euskal Kostaldeko Geoparke** izendatu berriaren bihotzean aurkitzen da harrobi hori. Gainera, giza jarduerata egon den hargin lanbideari lotutako ondarea ere berreskuratu eta kontserbatu nahi zen, ondare haren oinarrizko osagaia delako; kontuan izan behar da, antzina, artisau-lana zela harginarena eta gure udalerraren kultur eta historia legatuan arrasto oso garrantzitsua utzi duela zizelkaturik.

Donostialdetik, Oarsoaldetik, Tolosaldetik, Goierritik eta Bilbotik etorritako gazteek erraz gainditu zituzten aurreikuspen guztiak, buru-belarri ibili zirelako eta euren konpromiso eta interesari eta, batez ere, talde sentimenduari, elkar laguntzari eta adiskidetasunari esker. Horrela, beste helburu handi bat, eta agian garrantzitsua, **auzolanean** aritzearena (gure herriaren kulturaren eta idiosinkrasian hain errotuta egon den balorea), aise gainditu dute gazte hauek.

Sastraken garbiketa eta kentze lanei esker, geologia eta etnografia ondarearen dibulgaziorako gune garrantzitsu bat berreskuratu ahal izan da.

Lastur bailarako txoko honetan ahanzturatik salbatzeko kultur ondare izugarria daukagu oraindik. Hasiera batean pentsatutakoa amaituta, ondare horren elementuren bat berreskuratzeko eginkizun eta lanak bilatzeari ekin zitzaion orduan. Eta horrela hasi ziren **Goikolako errota** zaharraren berreskurapen lanak. Sasi artean beste errota zahar baten, Goikola Berriren, aztarnak aurkitu ziren gainera, antapara, ehotzeko harri eta guzti. Hura berreskuratzeko aukera berri baten zain egon beharko da ordea.



Bi sukaldari bikainek mimatuta, gazteek eta euren begiraleek -Iñaki Saenz, Miriam Azpeltia eta Maider Gorritiberea- egindako lan bikainaren ondoren, Lasturko nukleoaren potentzialtasuna agerian geratu da: errotak, errotak eta plaza lotzen dituen bide zaharra (Lasturko kanalaren zati izango litzatekeena eta oraindik berreskuratu gabe dagoena), eta artisau-harrobi zaharra. Multzo hori guztia benetako erakargarri turistiko izan liteke, eta horrek bailarako ekonomia lokala bultzatu lezake. Horregatik guztiagatik balioan jarri beharko litzateke.

Gazteek euren lana saritua ikusi zuten, arratsaldean eta asteburuetan aisialdiko jarduerekin gozatuz.

Eskerrak ematea bakarrik falta da; Kutxari, auzolandegi hau aurrera ateratzeko apustua egitearren eta, batez ere, proiektu hau errealitate bihurtu duten gazteei: Maite, Ane, Libe, Aritz, Iñaki, Elaia, Axel, Oier, Ainhoa, Julen, Mattin, Maria, Fermin eta Juan. Eskerrak bihotzez baita ere Martin eta Josu sukaldari bikainei, ezin langileago den Asier Izagirre Aranzadiko teknikariari eta Debanaturako kide den Ander Izagirreri.

Debanatura

Bandera beltza Deba itsasadarrari

Ekologistak Martxan taldeak euskal kostaldearen egoera aztertu, eta Gipuzkoan eta Bizkaian hamaika gune beltz nabarmentzen dituen txostena aurkeztu du.

Arriskuan dauden kostaldeko eremuen gaineko azterketa egin berri du taldeak, eta Bizkaian eta Gipuzkoan barrena hamaika bandera beltz ezarri ditu, beste horrenbeste ingurune kaltetuetan. Nabarmendutako kalteen eragileen artean daude Pasaiaiko portu berriaren eta Urdaibaiko Guggenheim berriaren egitasmoak, edota Petronor konpainiak Muskizen duen proiektua.

Talde ekologistak Estatu espainoleko kostaldea hartzen du aintzatu urtero argitaratzen duen txostenean eta «bandera beltzak» ezartzen ditu okerren dauden itsasertzeko zonetan. Txostenak, Gipuzkoan, Orioko Muntoko hirigintza planari ere eman dio bandera beltza, Oriaren ibaiertzean etxeak eraikitzeke egitasmoagatik. Debaren arroko kutsadura larria ere aipatu du txostenak.

Debaren arroa, kutsatua Gipuzkoan Debagoiena zeharkatzean jasotzen dituen isuri industrialak dira Deba ibaiaren kutsaduraren arrazoi nagusia. Besteak beste, Aretxabaleta,

Arrasate nahiz Antzuolak ur-araztegirik gabe jarraitzen dute. Gainera, azpialdeko arroak, Debabarrena eskualdeari dagokionak, kutsadura handia izaten jarraituko du, bai behintzat Bizkaitik Ego ibaira botatzen duten uraren garbiketari aurre egiten ez dioten bitartean. Bereziki premiazkoa da Ermua-Mallabiko araztegia, talde ekologistak dienez.

Beraz, Debegeesak eta URAK sustatutako **BIZIGURA Deba ibaia** programak gogoz eta premiaz aurre egin beharko dio Deba ibaiko egoera tamalgarri eta jasanezin honi, denboran gehiegi luzatu ez dadin.

Debalaik antolatutako moda desfilea eta merkatu irekia



Irudiak: Nerea Allika

Debalai 2010eko urtarrilean sortu zen. Gaur egun 50 kide ditu, dendari eta ostalariak. Eta elkartearen helburua herriko komertzioa bultzatzea da, horrela herria bizirik mantentzeko.

Elkarteak, herriko komertzioak kalera ateraz, Deban ekitaldi berezi eta dibertigarri bat egin nahi zuen, gure herriko uda giroa hobetuz. Ideia hau aurrera eramanez, Debalaren Moda Desfilea egitea erabaki zen. Eta segituan konturatu ziren herriaren parte-hartzea garrantzitsua zela halako ekitaldi batean. Beraz, debar modeloak lortzen eta herriko talde ezberdinen laguntza bila hasi ziren.

Azkenean, 80 herritar inguruk hartu zuten parte. Adin guztietako jendea zegoen bertan (5 urtetik 60ra bitarte), herriko 19 dendak beraien produktu berezienak erakutsi zituzten eta herriko bi talderen parte-hartzea egon zen: The Orbital Planet Jazz Band eta Biraka dantza. Banda hori debar musika osatuta dago eta bi abesti jo zituzten. Dantzariak, berriz, estilo ezberdinetako koreografiaren bidez gure dendarien aurkezpena

egiten lagundu zuten.

Alaitz Izagak, Mapfre aseguruaren ordezkariak, hartu zuen desfilearen zuzendaritzaren ardura. Dantzan urte askotan jasotako ezagutzak, lortutako esperientziari esker, ideia berri eta freskagarriak eman zizkion ekitaldiari, eta desfile ezberdin bat eskaini debarrei.

Hori hala, uztailaren 16ko gauean Debalaik modaz gain, dantza, musika, espektakulu eta sorpresak bateratu zituen pasarela gainean. Hitz batean, arrakasta handia izan duen "show" bat ikusteko aukera izan genuen Aldats pilotalekuan.

Leku berean, baina egun batzuk beranduago (hilaren 24an), merkatu irekia ere antolatu zuen elkarteak. Ekimenean herriko hamalau merkatarik eta bi ostalarik parte hartu zuten, eta herritarrek deskontu eta eskaintza bereziak izan zituzten aukeran.

Lerro hauen bitartez eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu ekimen hauek aurrera ateratzen lagundu duten guztiei!

Deba bizi, bertan erosiz!!

Debalai Elkarteak

Itziarko trikiti eskolak baditu txapeldunak

Santio egunean, 16 urtetik beherako trikitilariak lehiatu izan ziren Zubietako XIV. trikitixa txapelketan. Saioan sei bikotek parte hartu zuten, eta txapeldunak Josune Arakistain eta Alaitz Escudero gazteak izan ziren, Itziarko trikiti eskolako bikotea, hain zuzen. Jagoba Uranga irakasleak bertan egindako lana fruitua ematen hasi den seinale. **Zorionak txapeldunei!!**



Irudiak: Maitane Unanue



JZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

API
Nº 379
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK
Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Literatur lanak

Alaitz
Escudero

Leihoa

DBHko lehenengo zikloa.

Idazlan lehiaketan I. saria lortu du (narrazioa)



Sukaldeko leihotik begira pasatzen ditut orduak eta orduak, batez ere orain, udan partean.

Bertatik so zer egiten dudan galdetuko duzue, ea zer duen sukaldeko leiho batetik begiratzeak. Ba niretzat asko esan nahi du, bizitzako oroitzapen goxo eta ederrak baitatozkit burura. Bertatik so nagoenean, nire etxe aurreko plazatxoan parrez jolasean dabiltzan umetxoei begiratzean, nire garai zoriontsu haietaz oroitzen naiz. Zoragarriak izaten diren bizitzako lehenengo etapaz gogoratzen naiz: gurasoek gure lehenengo irribarrea ikustean, gure aurreneko pausotxoa ematen dugunean, gure lehenbiziko lagunak eta estreinako eskola egunak izatean, zoriontsuak eta geldirik ezinak izaten garen garaietaz.

Libre sentitzen gara arratsaldetan jolasten pasatzen ditugun ordu horietan, bai, libre gara. Kaleak gora eta behera korrika pasatzen ditugu, parrez, ingurukoek gutaz zer uste duten axola ez digula, gure lagunak eta gu mundu bat garela pentsatzen dugula. Ez gara konturatzen alhoan zer gertatzen den, ez dugu jakiten benetan zer den bizitzea. Gurasoak eta lagunak ditugu ondoan, beti laguntzeko prest, eta ez dugu beste ezeren beharrik izaten. Eurekin haserretzean, gurasoei inoiz ateratzen ez zaizkien malkoak nabaritzen ditugu gure masailetan behera. Momentu horietan, ez ditugu pertsona horiek alhoan izan nahi, baina geroago konturatzen gara eurak alhoan behar ditugula, derrigorrez, eurekin haserretu arren eurak baitira gure ahoan irribarrea eta gure barruan alaitasuna ateratzen dakitenak.

Denborak aurrera egingo du, eta orduantxe jabetzen gara zer den mundu honetan bizitzea lortzeko pasa behar dena, orduan ezagutzen dugu zein den

gurasoek txikiak ginenean euren artean erabiltzen zuten "sufirimendu" hitzaren esanahia. Orain bai, hantitzen ari gara, eta badakigu zer diren malkoak, badakigu gurasoei ere malkoak isurtzen zaizkiela masailetan behera, badakigu zer den tristura eta badakigu zer den benetako lagunaren beharra. Bakoitzak bere bizitza atera beharko du aurrera, agian gurasorik gabe, agian lagunik gabe. Benetan orain arte gure inguruan egon diren eta hainbeste behar genituen pertsonarik eta babesik gabe. Banantzeko ordua iritsiko da, nahiz eta beti bihotzetan elkarrekin egongo garen jakin badakigun, nahiz eta noizbait berriz elkartuko garen sinisten dugun. Eta konturatzen gara gure hase-reak, gure liskarrak, gure artean zegoen maitasunaren adierazgarri zirela. Ohartzen gara gure bihotzean inork bete ezin duen hutsunea dagoela, hutsune beltza, ilunpea, norbaiten beharra. Eta nahiz eta munduko familiarik zoriontsuena izan, nahiz eta munduko seme-alabarik alaiena eduki, ezingo dugu gure hutsune ilun hori bete, ezingo dugu gure ikatzezko zuloa urre bihurtu, ezta tristaturiko zati hori pozez bete ere. Hori lor dezaketen bakarrak gure gurasoak eta gure bizitzaren hasieran gurekin dauden lagunak baitira. Momentu txar eta on guztietan gure ondoan egon diren benetako lagunak. Nahiz eta beste milioika eta milioika lagun egin ere, haiek trukatzea ezinezkoa baita. Ezin baitituzu ez diruz ez beste pertsona batzuekin hainbeste denbora norbere babesgarri eta norberari laguntzen eman duten pertsonak beste batzuek aldatu.

Elkartzean, aspaldi egin genuen bezala, gure bizitzaren lehen bideko aurreneko atea ireki genuenean bezala, elkarri eskua emango diogu, denok berriz batuko gara, eta poztasunez biziko gara berriz, guztion bihotzak elkarrekin. Oraingo honetan, ez ditugu loturak askatuko, eta gure bizitzaren azken atea elkarrekin zeharkatuko dugu, elkarrekin itxi, betiko. Nik, sukaldeko leihoa itxiko dut, bakarrik baina lagun artean, nik ere bihotzean baitaramatztat guztiak, nire lehen garaietako pertsona ahaztezinak. Eta pozik itxiko dut leihoa eurak gabe, nik hau itxi arren beste aldean bizitzak jarraituko baitu, eta hark beste leiho asko irekiko baititu, beti familiaren alhoan, beti lagun artean.

**Mikel
Elorza**



Itsasoari begira

**DBHko lehenengo zikloa.
Idazlan lehiaketan I. saria lortu du (poesia)**

Itsasoa, itsasoa,
etorri eta badoa,
apar txuria
arroketara doa.

Olatuak eta kaioak,
hodeiak eta zipristinak,
dantzan guztiak,
denak pixpirinak.

Negar egitean ilun,
pozik egotean argi,
argitzean kezkatu,
ilunabarrean lotsati.

Herriak isilik,
itsasoa bizirik,
olatuaren zarata
isil ezinik.

Eguzkia laino artean,
itsasoa bakarrik behean,
elkarri islatuz,
koloreak sortuz.

Arrainen bila itsasontziak,
ilundu arte egonean,
noiz harrapatu ezin jakin,
zerbait hartzeko esperantzarekin.

Agur Chopin maitea



Maialen
Tellabide

DBHko bigarren zikloa. Idazlan
lehiaketan I. saria lortu du (narrazioa)

Logelan zuen istilua jasotzen ari zen bitartean, amaren dei batek lasaitasuna hautsi zuen bere barnean *“Frédéric! Zatoz behera azkar!”*. Dena zegoen bezala utzi zuen eta behera joan zen ama haserretu baino lehen. Egongelan bere arreba zegoen eskutitz batekin *“Hemen duzu, zure irakaslearen beste eskutitz bat, ea zer dioen orain”* *“Emadazu hori, eta ez kexatu hainbeste”*. Eskutitza zabaldu zuenean, toki bat eta ordu bat baino ez ziren azaltzen: *Antzoki Nazionalean, iluntzeko zortzietan*. Harridura aurpegia jarri zuen, eta eskutitzari begira eskailerak igo zituen bere logelarantz. *“Zer? Oraingoan ez al dizu zoriondu ala?”*, esan zuen bere arrebak iseka moduan. *“Isil zaitez, mesedez. Ama, ez nago afaltzeko!”*, eta bere logelan sartu zen. Arrebak ez zuen ezer ulertzen eta ezezko keinua eginez bere zereginetara itzuli zen.

Azken urteetan Varsovia asko handitu zen; 1810 urtetik aurrera, kultur guneak eta antzokiak eraiki ziren; beraz, jende gehiago etortzen zen bizitzera. Jada 1828. urtean ziren eta Europako musikagile garrantzitsuenek Varsoviako Antzoki Nazionalean jotzen zuten sarritan. Iluntze hartan, Johann Nepomuk Hummel pianojole alemaniarrek jotzen zuen bertan eta bere irakasleak hura ezagutzeko aukera eman zion.

Jada antzokian, Hummelen musikaz liluratuta zegoen arren, albo batera begiratu zuenean, han ikusi zuen denen gainetik dirdiratzten zuen neska eder bat, soineko luze berde batez jantzia, eta ilea kiribilez josia albo batera botata, brontzearen kolorekoa, eta bien begiradek topo egin zutenean, berehala biek aurrera begiratu zuten ezer gertatu ez balitz bezala; hain ederra zen, ezen ezin izan baitzuen kendu burutik bere begirada jaialdi osoan.

Jaialdiaren bukaeran Elsnerrek eszenatokiaren atzera eraman zuen, Hummel ezagutzeko asmotan *“Chopin, zatoz nirekin, Hummel ezagutzea nahi dut”*, eta Frédéric memelo baten moduan atzetik joan zen, oraindik emakume hura baitzuen buruan. *“Gabon, Hummel jauna. Hemen duzu gaur goizean aipatutako mutil gaztea, Frédéric Chopin duzu, talentu handia du mutilak, bai noski! Ezta, Frédéric?”*. Mutila, ordea, bere munduan zegoen. Irakasleak kolpetxo bat eman zion kokotean ea bere onera itzultzen zen edo. *“Ah! Bai, bai, gabon jauna, kontzertu bikaina izan da, aparta, benetan zirrara piztu duzu nire barnean”*. Eta momentu hartantxe, berriro ikusi zuen neska hura, interpretearen atetik igarotzen, eta ezer esan gabe, alde egin zuen bertatik, oinak bakarrik joango balitzaizkio bezala, bihotzak esaten zionari kasu eginez. Bere irakaslearen

deiak entzuten ziren hondoan, errieta eginez, baina ez zitzaion axola. Neska hori nor zen jakin behar zuen.


Egunak pasa ziren, eta Varsoviako kontserbatori-
oan segitzen zuen ikasten, bere orain arteko irakaslearen eskutik, baina azkenaldian, ohikotan baino gehiago igarotzen zen kantua erakusten zuten gelatik, Konstanzen bila, alegia. Ordurako hainbat aldiz geratuak ziren ikastetxearen atzeko aldean, denbora elkarrekin pasatzeko. Hitzak eta, hitzak baino gehiago zegoen bien artean, eta Frédéric-en lagun Titusek, hainbat egoera larritan salbatzen zituen; noizbehinka, klaseetara berandu iristen zirenean, Titusek gezurtxoren bat asmatu behar zuen. Frédéric beranduago iristen zen etxera, baina beti neurrian, etxe-koek ezer susma ez zezaten. Eta ez, jada ez ziren Elsnerren hainbeste eskutitz iristen, orain Konstanzenak gehiago ziren, eta bera joaten zen bila inor baino azkarra-
go, inor kontura ez zedin. Maitasunezko eskutitzak bidaltzen zizkieten elkarri, ia egunero elkar ikusi arren. *Maitea gaur gauean ere faltan botako zaitut nire alboan, baina nire ametsetan egongo zara, niretzat pianoa jotzen... Zoritxarrez, Chopinek egun hartan ezin izan zion pozaren pozaz erantzun: Konstanze maitea, gure patuak elkarrengandik urruntzea erabaki du. Nire etorkizuna Vienan dago, aberastu egingo naiz, eta berriro itzuliko naiz, zurekin egoteko, ezkontzeko, familia bat osatzeko... Ez dut zure begirada inoiz ahaztuko. Maite zaitut. Bi urte barrura arte, zure Frédéric Chopin.*

Chopinek izugarrizko arrakasta izan zuen Vienan. Aberastu zen, lehengo urtean klaseetara joaten jarraitu behar izan zuen arren. Orain Konstanzentzat konposatzen zituen obrak. Baina 1830eko apirilean, Konstanzen beste eskutitz bat jaso zuen:

Kaixo Frédéric. Jada ez nago zure zain. Ahaztuta naukazula sentitzen dut, joan zarenetik ez baitidazu eskutitzik bidali. Baina, hala ere, zure begien, ezpainen, ilearen eta abarren oroitzapen gozoa dut bihotzean eta, asko kostatzen ari zait beraien eragina leuntzea. Horregatik, beste gizon bat ezagutu dut, berriro maitemindu nahi dut, eta oraingoan benetako maitasuna izatea nahi nuke. Ez dugu berriro elkar ikusiko, Ingalaterrara joango naizelako bizitzera, bertako kontserbatorioan ikasketak bukatzeko. Zorte ona opa dizut, eta jakin ezazu zure izena denen ahotan dagoela Varsovian eta zure familia benetan harro dagoela. Bihotzeko min handiarekin, baina esperantzaz josita: Agur Chopin maitea.

Konstanze

Lander
Aranberri



Faltsutasuna

DBHko bigarren zikloa. Idazlan lehiaketan
bigarren saria lortu du (poesia)

Gaua da
iluntasunaren jabe,
ilargi amandreak
beretzat erosi zuen
urrerik gabe.

Zuhaitzak trinko daude,
naturak duen lez,
Gizakiak, ordea
makal daude
eta geldi ez.

Zuhaitz batengatik
sufrituko nuke?
Ez dut uste.
Gizonagatik,
noski baietz,
natura gogorra delako
eta gu ez.

Gizakia ustela da,
gainera,
faltsua eta gezurtia,
askoz garbiagoak dira,
adibidez,
kutsatutako hariztiak.

Hain faltsua da gizona,
non,
gezurra egi bihurtzen
eta egia gezur bihurtzen duen;
ametsa errealitate
eta errealitate amets
bihurtzen duen.

Bai, ametsa,
gauza berezia.
Bertoko munduan,
mundu magikoa dugu.
Mundu magiko hontan,
ametsetan,
otu zait, bada,
mundu ideala,
txoriek txorrotxio ederrak
egin ditzakeena,
sorginen akelarreak
egia direna,
ni eta ametsetako emakumea
ilunabarrean,
ur garbietan,
maitatzen garenarena.

Ezberdina, eta gordina
da ordea
errealitatea.
Gordina da,
jakitea,
mundua gure erara
moldatzen ari garela
jakitea,
landareak
toki txarrean sartzean,
animalien migrazioak
derrigortzean,
hanburgesa txarrak
jatean.
Alda dezagun txipa,
eta salba dezagun
gure Lurra,
maitasunean,
elkarlanean,
eta bakean.

Asko dugu gazteengandik ikasteko

Hezitzaileoi ikasturte honetan gazteek eman diguten ikasgaia zuekin guztiokin konpartitu nahi dugu:

Posible dela bakoitzak nahi duena lortzea eta eskuratzea...

autogestioz



Urte bat eta erdiko esfortzuaren ondoren, Lisboan

ardurak hartuz



Sahararen aldeko merkatuan

konstantziaz



Urtean zehar ostiralero lanean aritu ostean, Paintball

Baina betiere... amestuz



Santa Klara uhartean

ausardiaz



Norbere izuak gaindituz, Donosticup

eta bidean gozatuz



Arcachoneko aquaparkean

laguntasunez



Eguraldi txarrari aurpegi ona jarriz, Errealaren entrenamenduan

Mila esker zareten bezalakoak izate-agatik. Ez utzi albo batera zuen ametsak beldur edo lotsagatik eta eraiki zuek nahi duzuen etorkizuna, zuen esku dago eta! Plazer bat da zuekin lan egitea. Ondo ondo pasa uda!

Gaztelekuko hezitzaileak

UDAL BATZORDEAK OSATU DIRA

Herriko ordezkari politiko berriek uztailearen 7an ezohiko udalbatzarra egin zuten eta udal batzordeak osatuta daudela jakinarazi dute.

Egungo **Gobernu Batzordea** Alternatiba Eraikitzeneko Silverio Urkirik eta Maider Zubikarai, Xabi Ciaranek (EA), Asier Oñederrak (Aralar) eta Andoni Aranberrik (Itziar Herria Sortzen) osatzen dute. Batzordeak eta batzordeburuak, berri, hauek dira:

***Barne Errejimena:** Silverio Urkiri

***Obrak eta zerbitzuak:** Silverio Urkiri

***Ogasun, Ondare eta Kontuak:** Silverio Urkiri

***Hirigintza eta Etxebizitza:** Maider Zubikarai

***Ingurumena eta Geoparkea:** Maider Zubikarai

***Euskara eta Hezkuntza:** Nekane Arakistain

***Itziar eta Landa Ingurunea:** Iñigo Izagirre

***Kultura eta Festak:** Mari Fran Agirregabiria

***Gazteria eta Kirolak:** Asier Oñederra

***Osasun eta Gizarte Ongizatea:** Ina Aznal.

Aurreko legealdiarekin alderatuta, aldaketaren bat ere izango da. Gobernu Batzordean, esaterako, udalean ordezkaritza duten alderdi guztiek izango dute tokia aurrerantzean, EAJk izan ezik (oposizioan arituko da).

Bestetik, Itziar eta Landa Eremua batzordeak batzorde bakarrean bildu dira orain. Itziar Herria Sortzen taldeak Tokiko Erakunde Txikia lantzeko mahaia zuzenduko du.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

SAN ROKE 2011

Abuztuak 14

18:00: Kanpai errepika eta udaletxeko balkoitik txapleroa botako da San Roke festak iragarri. Ondoren, Debako Martxaren soinuarekin zapi gorria jarriko zaio San Rokeri, "lagun gaitzala eta zaindu gure umore ona!".

Jarraian: Kalejira, banda, txistulari eta Lizarrako Gaiteroekin (buruhandien laguntzaz).

19:30: Udaltzatza elizara abiatuko da Alkate Soinu entzunez. Gure Kai Dantza Taldeak Erreberentzia eta Ezpata Dantza dantzatuko du. Ondoren, Hilarion Eslavaren salbea abestuko du Aitzuri Abesbatzak.

22:30: Danborrada Ozio Bide Elkartearen eskutik.

00:30: Dantzaldia: Joxpa taldea.

Abuztuak 15

07:00: Diana, Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).



10:00: Artisanu feria, plaza zaharrean.

13:00: Enbolatuak, plazan (Arrizabalaga anaiak).

17:30: Haurrentzako jolasak, Simon Berasaluce plazan.

18:00: Zezenketa, Tamameseko Puerto de San Lorenzo-ko (Salamanca) ganadutegiaren eskutik. Toreatzaileak: Sergio Rodriguez eta Luis Rivera. Sobresalientea: Víctor Hernández. Ondoren, kalejira Banda eta Lizarrako Gaiteroekin (buruhandien laguntzaz).

00:00: Rock kontzertua: Sex Museum + Willis Drummond.

Abuzt. 16, San Roke Eguna

07:00: Diana, Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).

09:30: Gure Kai Taldekoen Ezpatadantza eta Agurra plaza zaharrean. Jarraian, Udaltzatza ermitara igoko da prozesioan eta Meza Nagusia izango da. Ondoren, Larrain Dantza egingo da plaza zaharrean (Lizarrako Gaiteroekin).
12:30: Aurrekua Foruen Plazan. Ondoren, enbolatuak.

17:30: Haurrentzako jolasak, Simon Berasaluce plazan.

18:00: Zezenketa, Tamame-

seko La Ventana del Puerto (Salamanca) ganadutegiaren eskutik. Toreatzaileak: Sebastian Ritter, "El Juli" eta Jesús Bayort. Sobresalientea: Víctor Hernández. Ondoren, kalejira.

23:30: Sufestak hondartzan (Pirotecnia Zaragozana).

00:00: Kontzertua: NAO.

Abuztuak 17, Umeen Eguna

08:30: Diana, Lizarrako gaiteroekin.

09:30: Haurrentzako entzierroa (ondo lotu lokarriak!).

11:15: Alkateak agintea emango dio haurrek osatutako udaltzari.

11:30: Bilkura Ifar Kalean.

12:00: Eskaintza elizan. Desfilea. San Roke dantza Portu kalean.

12:30: Pottokak eta buruhandiak Foruen Plazan.

18:00: Jaialdia plazan: danborrada, herri jolasak, dantzariak, zezenak, sokatira, amaitzeko agurra. Ondoren, erraldoi eta buruhandiak, Lizarrako Gaiteroekin.

22:00: Pilota partidak Aldats



pilotalekuan. Lau terdikoan: Argote/Iza. Bigarren partidan: Saralegi-Mendizabal II/Olaetxea-Apraz.

00:00: Dantzaldia Gaubela taldearekin.

Abuztuak 18, Marinel Eguna

06:30: Kardantxulo Kantua, Thierry Biskary abeslariarekin. Irteera plaza zaharretik.

07:00: Diana, Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).

11:00: Gure Kai Dantza Taldea eta Kalez Kale Txistularien eskutik Jorrai Dantza kaleetan zehar.

12:00: Erraldoi eta buruhandiak, Lizarrako Gaiteroekin.

12:30: Sardinada eta kantutak (Arakistain plazan), Broken Brothers Brass Band txarangarekin.

13:00: Enbolatuak, (Arrizabalaga Anaiak).

15:00: Bazkari herrikoia karpian.

17:30: Kalejira Lizarrako Gaiteroekin. Koadrilen txalupa jaitziera (Jai Herrikoien Aldeko Kolektiboak antolatuta) eta kukañak.

18:00: Estropadak: "Debako III. Ikurriña". Emakumeen traine-



rak: Zumaia, Getaria-Tolosa, Orio eta San Juan.

20:00: Kaleetan zehar jaialdia: txistulariak, trikitilariak, bertsolariak (Arkaitz Estiballes eta Iker Zubeldia), abeslariak (Duo-Deno) eta Irintzi Lehiaketa.

22:30: Asto Karrera (Jai Herrikoien Aldeko Kolektiboak antolatuta) eta Ori Txaranga.

00:00: Larrain Dantza plaza zaharrean.

00:30: Kontzertua: Luhartz.

Abuztuak 19, Kanbo Eguna

07:00: Diana, Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).

11:00: Kanboko ordezkarietara ongi etorria.

11:00: Jubilatuen elkartean udalak eskaintako hamaitakoa hirugarren adinekoentzat.



Oharra: San Rokeen inguruko bi gutun bildu ditugu *Berriketan*-en ale honetan. Horietako bat Jesus Mari Azkoitiak idatzi du, eta bestea Debako Katekesi Taldearena da. "Gutunak" atalean dituzue irakurgai, aldizkariko 4. orrialdean.

Trikitilariak bertan izango dira, eta bitartean arratsaldetako zezenketarako bedertzi sarrera bikoitz zozketatuko dira.

12:30: Enbolatuak (Arrizabalaga anaiak).



17:30: Haurrentzako jolasak, Simon Berasalaluce plazan.

18:00: Zezenketa, Tamameseko Puerto de San Lorenzo (Salamanca) ganadutegiaren eskutik. Toreatzaileak: Carlos Navarro eta Luis Miguel Castrillon. Sobresalientea: Víctor Hernández. Ondoren, kalejira Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin. Jarraian: Erraldioen Agurra plaza zaharrean.

00:00: San Roke Festen amaiera, Plaza Zaharrean. Ondoren, Roke Deunaren irudiari ohiturazko zapi gorria kenduko zaio.

DEBAKO JAIXAK

2011ko Abuztua

13 MOZORRO EGUNA
-13.00etan Kalejira ta poteoa Elektobaxaragakin gaztetxetik
-15.00etan Bazkari Herrikoia karpan
Ondoren mozorro-show lehiaketa (1. Proba)
-19.00etan joku-poteua elektobaxaragakin! (2,3,4,5 Probak)
-23.00etan Kontzertuak:

EGURRA TA KITTO | IZIASTREN * SEMEA | + Erromeria

14 EZ GAUDE DENOKI
-19.00etan Presoen aldeko manifestazioa
-3.00etan Karaokea (6. Proba)

15 GAZTETXE FINKOA ORAIN!
-18.00etan Jokuak jubilauetan: Mus, dardo txapelketa
Toka ta igela
-2.00etan DJ Festa
Ondoren Katxikrosa

16 ZEZENAK MENDIAN, BERTSOAK PLAZAN
-18.00etan Bertso saioa
Atsedernaldian Bertso paper lehiaketa

17 PATXI GOGOAN ZAITUGU
-20.00etan Lore eskeintza
Gauetan afaria

18 PIRATEN EGUNA
-17.30etan txalupa jeitsiera (8. Proba)
-22.30etan asto karrera (9. Proba)

19 GAZTE EGUNA
-13.00etan paella lehiaketa (10. Proba)
Ondoren Bazkari Herrikoia ta jokuak
-23.00etan Kontzertuak:


Badira zenbait era jaiak antolatzeko, badira zenbait modu festak aurrera eramateko. Geure herrian, Deban, jai eredu alternatibo baten aldeko kolektibo bat sortu berri da, **Jai Herrikoien Aldeko Kolektiboa**, berria ez den grina batzuei erantzun nahiez: jai herrikoi, euskaldun, parekide eta parte-hartzaileak asmo dituen kolektibo batean bildu gara herriko gazte asko eta asko, eta jada hasi gara lanean.

Urteko egunik luzeena eta gaurik motzena dituen ekainaren 23aren iluntzerako **Sorgin Gaua** antolatu genuen hondartzan, euskal mitologia eta euskal kultura gogoan hartuta. Giro ederrean eta bertara hurbildutakook jotako musikaz lagunduta eman genion ongi-etorria aurtengo udari. Jada urtaro berrian sartuta, uztaile erdialdean, hainbat urtez Debako Gazte Asanbladak antolatu izan duen **Galerna Festa** antolatu eta ospatu genuen; izan ere, aurtentzen geuk hartu dugu jai honen ardura eta bera aurrera eramateko konpromisoa. Jaialdiotatik benetan ondorio aberasgarri eta onak atera ditugu, eta eginiko balorazioa oso positiboa da, nahiz eta Galerna Festan eguraldia ez genuen lagun izan, hein batean egitaraua baldintzatuz, eta gaztetxera lekualdatu behar izan genituen zenbait ekimen. Orduetik bertako ospakizun nagusiak diren herriko jaietara luzaturik ditugu begiak eta buru-belarri ari gara geure egitarau alternatiboa eta ekintzak prestatzen. Gazteak oinarri diren eta hainbat koadrilaz eta taldez osaturik dagoen kolektiboa da hau. Horrez gain, proposatzen dugun jai ereduarekin bat egiten duen edozein talde edota norbanako ongi etorria da geure artean.

Geure helburua eta nahia dira herri honen alde lan egitea, jai herrikoi, euskaldun, parekide eta parte-hartzaile batzuk bultzatuz.

Beraz, ANIMATU ETA PARTE HARTU!!!

JHAK - Jai Herrikoien Aldeko Kolektiboa



AGENDA

Abuztuak 14tik 19ra:

-**Debako San Roke jaiak.** Egitaraua aldizkari hone-tako 16. eta 17. orrialdeetan duzue.

Irailak 10-11:

-Lasturrek **San Nikolas jaiak** hartuko ditu irailaren 10 eta 11n, baita hurrengo asteburuan ere.

Irailak 24, larunbata:

-XIV. EUSKAL JAIA:

Dagoeneko abian daude aurtengo hitzorduan euskal giroan murgiltzeko antolakuntza lanak. Egun osoko egitaraua izango da: musika, zantantzarrak, herri bazkaria... Beraz, adi! Guztion laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoa izango da eta!





XXVIII. UDAKO MUSIKALDIA

-**Abuztuak 18**, osteguna: Saioa Sanchez sopranoa eta Natalia Christoph pianojolea.

-**Abuztuak 25**, osteguna: Cuarteto Arriaga.

*Kontzertu guztiak klaustroan burutuko dira, eta 20:30ean emango zaie hasiera.

-**ERAKUSKETA:** Santa Maria Elizako klaustroan **Iruña Cormenzana Lopez** artistaren "Musika" izenburuko pintura erakusketa egongo da ikusgai, uztailearen 15etik irailaren 25a bitarte.



ERAKUSKETAK TURISMO BULEGOAN

-**Willy Berasaluceren** erakusketa, Turismo Bulegoan. Abuztuaren 5etik 21a bitarte.

-**Kanboko Margolari Taldearen** erakusketa, Turismo Bulegoan. Abuztuaren 26tik irailaren 10a bitarte.

-**Margo Lehiaketako** lanen erakusketa, Turismo Bulegoan. Irailaren 11tik irailaren 18a arte.

-**Cristina Azpiri Ugartebururen** erakusketa, Turismo Bulegoan. Irailaren 24tik urriaren 2a bitarte.

***Turismo Bulegoko ordutegia:** Astelehenetik ostegunera: 10:00-14:00; ostiral eta larunbatetan: 10:00-14:00/17:00-19:30; igande eta jaiegunetan: 10:00-14:00.

UDAKO ORDUTEGIA LIBURUTEGIAN

-Irailaren 8ra bitarte, **Ostolaza Udal Liburutegiak** udako ordutegia izango du.

*Liburutegi orokorra, astelehenetik ostirala bitarte, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

Oharra: San Roke jaiak direla eta, abuztuaren 15etik 19ra bitarte itxita egongo da liburutegia.

POSTAL LEHIAKETA

Zuhatzak postal lehiaketa antolatu du herritarren oporraldiak ezagutu eta uda partean haien nondik norakoen berri izateko. Edonon izanda ere euskaraz idaztea posible delako, animatu parte hartzera! Bi lagunentzako afari goxo bat dago jokoan! Lehenengo urratsa aurkitzen zaren lekuko **postal polit bat lortzea** izango da (inguruko leku batetara eginiko irteerak ere balioko du). Bigarrenik, **deskribapena** hartuko da kontuan: lekuarena, jendearena, izandako inpresio pertsonalak... (laburra izatea komeni da). Ez ahaztu zurekin harremanetan jartzeko telefonoa edo izena jartzea!

Postala posta-zerbitzu arruntez bidali behar duzu zigilu eta zigilu-markarekin, irailaren 15a baino lehen. Helbidea: Ifar kalea, 12 behea. 20820 Deba.

IRTEERA GIDATUAK

Natura zein kultura ardatz hartuta, udan irteera gidatu ugari daude aukeran, guztiak ere hemen inguruan: Lastur, flysch-a eta karsta, kayak Deba ibaian... Informazioa: www.geoparkea.com-en edota Turismo Bulegoan (943192452).



JAR EZAZU ZURE
PUBLIZITATEA
ALDIZKARIAN!

berriketan@zuhatzak.com



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel./Fax: 943 192 249

Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940

sagarmina@sagarmina.com

www.sagarmina.com



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



TAILAGILEA

Zuriñe Gredilla Kareaga

Kalbeton Zumardia, 5
Tel.: 666 720 313
txirbila@gmail.com
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea - 20820 DEBA
943 029 186



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

zugandik zugana



JANTZIDENDA PAGO A

Lersundi kalea, 37
20820 DEBA

SO URTTE BURU - ZURI Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan trazoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Kafetegia



Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



Euskara ikasteko.
 Ordutegi malgua:
 goizez, arratsaldez eta gabez.
 Beka sistema eta diru laguntzak ditugu.

Cursos de euskera.
Horarios de mañana, tarde y noche.
Disponemos de sistema de becas
y ayudas para el pago de la matrícula.



EUSKALTEGIS MUNICIPALES
 EUSKARAREN
 IRAKASKUNTZARAKO
 ENTITATE OFIZIALA

San Roke Jai Zoriontsuak!

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
 Ifar kalea 12,
 Telefonoa: 943 192236
 e-posta: debabe.deba@telefonica.net

Zuhotza
 euskara elkarteak deba